

Paulo  
Agirrebaltzategi

Eusennorrekokidea

## Euskararen unibertsoa berreraikitzen

■ Euskaraz egin, berregin eta sozializatzeko den kultura eta gizartea da euskararen unibertsoa» dio Euskararen Unibertsoa izeneko mugimenduari, azken hilabeteotan bideratzen ari denaren, oinarritzeko lehen puntuak. Leku askotxoan jauki dute mugimenduarien bultzatzaileek dagoeneko euskararen unibertsoaren asmoa; baina oraindik kriptiko samarra gertatzen ote den nago izena bera hainbaten belarritan. Bada zalantzarik daukanik ere, funtsean dagoen intuizioa adierazteko izenik egokiena ez ote den horixe. Baina hitzak eta izenak aparte, euskalgintzak eta euskal kulturagintzak bizi duen egoeraren kezka zabalaren aitortpena eta horri erantzuteko urrats berria egin beharrenean uste sendoa dago aurrenik hor.

Bada ia urtebete idea kaleratu zela: kezka zabal eta sakon horiei erantzun nahian euskal kulturagintzako indar, erakunde eta sailentzako bateragunea eratzeke abiatu zen. Ez zen Kultur Kezka izeneko lehenagoko ekintza laburraren oihartzun atzeratu ez haren parekoa. Erakunde publikoek urterik urte euskalgintzari eta euskal kulturagintzari ezarritako murrizketen ondorioz, argi gorriak piztuta ikusi zituen hainbat jende, eta egoeraren larria aztertuz, euskalgintza eta euskal kulturagintza noraezen geratzen ari zela ateratu zuen ondorioz. Euskararen berreskurapenaren arazoari oinarri berriak zegoen ipini beharra, horren normalkuntzarako plangintza orokorra landu eta gorpuztu.

Euskararen Unibertsoarena uste handi baten aldarrikapena da aurrenik: Unibertsoa, berez osoa eta autonomoa, eratzen dutela euskarak, euskal kulturak eta horretatik bizi den komunitateak, eta ez erdarazko unibertso linguistiko, kultural eta sozial baten eranskina; asmo handi bat da ondoren: desintegraturik dagoen euskararen mundua berreraikitzekeoa; gizarte-mugimendu bat izan nahi du ondorioz: Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorrari oinarri sozial zabalaz ipintzeko.

Unibertsoa kontzeptua ez da berria kultur antropologentzat, Herri jakin baten kultura, horren hizkuntza eta guzti, konfigurazio bateratu (Ruth Benedict) edota sistema osotuztat definitu dutenean. Zoribaxrez, kulturazko unibertsoaren kontzeptu ideal hori lausoturik eta hautsirik geratu izan da, kolonialismoaren eta edonolako akulturazio-prozesuren eraginez, Herri jakin baten kultura osotua barnean desintegraturik eta gutxiturik geratu denean. Prozesu horren ondorioa izan ohi da, hizkuntzaren eta kultura gutxituaren mundua beste unibertso kultural eta sozial baten satelite, horren parte (sektore) edo eranskin bihurtzea. Herria Estatuako probintzia bihurtzen denean, edota horren hizkuntz-kulturak gaitetik ezarritako kulturaren baten kapitulu bihurtzen direnean, larriak dira ondorioak, ez bakarrik ikertzaileak bere ikerkuntza-eremua (unibertsoa) mugatzerakoan edo irakasleek bere gaiak irakasteen, eta bai eragile politiko, ekonomiko eta sozialek beren egitas-

moak egin eta burutzean ere.

Prozesu hori iraultzea esan nahi du Euskararen Unibertsoaren mugimendua, erdaren unibertsoen aurrean edo parean euskararen unibertsoa baieztatuz, eta hizkuntza eta kultur politikari berri baten oinarritzat ipiniz Euskal Herriarentzat. Euskararen Unibertsoa esatean ez da euskara bakarrik adierazi nahi, hizkuntza sistema formalizat hartuz hori; kulturaren unibertsoan, konfigurazioan edo sisteman, horren funtsezko azpisistema da hizkuntza, baina hizkuntza gertatu erabilera sozial eta kulturalan gertatzen da, eta gizartearen kultur bizitzan gorpuzten da. Euskaraz sortu, produzitu eta kontsumitzen den kultura osoa adierazi nahi da, eta horren biziaz bizi den gizartea, adierazi nahi ditu Euskararen Unibertsoak.

Prozesu dinamiko gisa Euskararen Unibertsoaren espazio linguistiko-kultural eta sozialek Euskal Herria beronen osotasunean hartzen du, euskal herritarren komunitatea euskararen inguruan eratu, baikoitzak duen euskal bizitzaren, gaitasunaren edota hurbiltasunaren arabera. Euskararen Unibertsoaren erdigunea euskaldun osoek eta euskaraz bizi direnek eratzen dute. Eta horietatik dira Euskararen Unibertsoa berreraikitzekeoa eta berrosatzeko plangintza orokorraren ardatza. Horrek zera eskatzen du zuzenean: euskalgintzako eta euskal kulturagintzako munduaren barne-koordinazioa eta artikulazioa.

Euskararen Unibertsoak trinkotasun

kontzeptual bikaina darama bere baitan, euskal gizarteari begira. Euskararen eta euskal kulturaren eremua unibertsoa da bere baitan, eta ez gizartea gorpuzten duten bestelako eremuen (ekonomikoaren, politikoaren, erlijiozkoaren, etab.en) sektore. Areago, beste eremu horiek beren aidentik gizarteren osotasuna beren ikuspegitik biltzeko dinamika duten bezala, Euskararen Unibertsoak bere baitan hartzen ditu barru-barrutik gizarteko eremu guztiak, guztietan bizi baita hizkuntza eta guztiak baliatzen dira hizkuntzaz, azken adierazpide gisa. Horrek zera esan nahi du, gizarteko eremu guztiak dutela zerikusi sakona Euskararen Unibertsoarekiko, eta hori berreraikitzekeo prozesuan erantzukizun zuzenekoak. Euskararen eta euskal kulturaren mundua ezin daitezke mundu ekonomiko, politiko, erlijiozko eta bestelakoen bazterreko edo alboko alortzat har.

Euskararen Unibertsoaren ikuspegi globalik ezean, euskararen eta euskal kulturaren mundua gizarteko eremu (txoko) txiro eta bazterrekoetat hartu ohi dute gizarteko eragileek programa politikotuan, plangintza ekonomikoetan, proiektu sozialetan, Elizaren pastoraltza-planetan edota administrazio publikoen aurrekontuetan. Euskal Herriko eremu ekonomiko eta euskal kulturaren eremua arrotzegiak izan dira maizenik elkarrekiko; ordua da bi munduen arteko hesia hautsi eta elkarreeragina eta elkarrekintza dinamizatzekeo. Baina euskararen plangintza orokorrean

du bereziki ondorioz Euskararen Unibertsoaren ikuspegiak. Horren ikuspegi sektoriala (eta marginala) errotik aldatzea eskatzen du plangintza orokorrak, gizarteko eremu eta sektore guztiak dinamika eta lan horretan ipiniko baditu. Euskararen mundua benetan unibertsoetat jotzen bada bakarrik, hartu ahal izango dute parte horren berreskurapen osorako eta normalkuntzarako plangintza orokorrean gizarteko eremu eta sektore guztiak; orduan horietako bakontzak bere mundu eta eremuaren barru-barrutik landu eta burutuko du bere plangintza sektoriala, plangintza orokorraren barruan, eta ez da geratuko kanpotik lagunduz edo gehienez ere euskararen aldeko neurri puntualen batzuk onartuz.

Euskararen Unibertsoaren baieztapenak, aldarrikapenak eta berreraikuntzak ez du inola ere bere baitan itxia adierazten. Osotasunarekin batera irekitasuna adierazten du Unibertsoak, etengabeko hedapen-prozesuan dagoenarena. Euskararen Unibertso sozialek eta kulturalak Europako eta munduko beste hizkuntza eta kultura modernoei buruz bere bizitzeko eta garatzeko borondatea aldarrikatu eta bere eskubidea defendatu behar ditu, konplexurik gabe, eta horiekin dimentsio guztietan homologatzekeo grinarik gabe, baina bere baitan uzkurtzeko joerari aurka egin ez eta unibertso kulturalen interkulturalizazioa orokortuari konfidantza atek irekiz. ■

